

## Arratia-Nerbioi pelota txapelketako finalak hilaren 16an Lemoan

10. orrialdea

## Artea neurtuko dabe Eleizondon

San Balendin jaiak ospatuko dira Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenez ezagutzen den ermitearen iguruan, zezeilaren 17an, domekan. San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan eta ondoren, Piedadearen aurrean dagoan artea neurtuko dabe. 12. orrialdea



## Emoitzak onak gure txirrindulariak ziklo-kros denporaldian

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 179

2013ko zezeilaren 4a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Txitxi-burruntziak eta mozorroak hileon

Zezeila Kanporamartxo izeneko ospakizunagaz hasi da. Aurten hilaren 3an izan da eta egun horretan jentea mendi edo ermita inguruetara joan da meriendea edo barauskarria egiteko, gehienetan menditik buelta bat egin ostean. Holan, Areatzakoak Lamindaon egin eben barauskarria, Arteakoak San Migelen eta Zeanurikoak San Lorentzo ermitearen inguruan batu ziran.

**A**ratusteak, hilaren 7tik 12ra dira, zazpia da Eguen Lodia, Aratusteai hasikerea emoten deuten eguna, eta gurean jaiak egun desbardinetan ospatuko dira. Mozorroak, dana dala, ez dira faltauko. Hilaren 8a, barikua, izango da egunik handiena Artean, Areatzan eta Zeberion. Eskola-umeak desfileak egingo dabez herritik eta

jaiak egingo dabe ondoren herriko plaza zein eskola inguruetan. Igorren, Lemoan eta Diman, barriz, zapatua aukeratu dabe mozorro lehiaketak egiteko. Erromeriak be egingo dira eta Igorren jaiak egun eta herri osoa hartuko dau. Jai honeetako atzenengo egunean, martitzenean, izango dira Bedian eta Zeanurin mozorro jaiak. 5. eta 6. orrialdeak



Orain dala urte batzuk Igorren hartutako argazkia.

### ARRATIA

## Korrika antolatutako batzordea martxan

Arratiako Korrika Batzordearen lehen batzarra urtailaren 31n izan zan. Han Korrikari lagunduteko Arratian egin beharreko lanak banandu ziran. Batzordean parte hartzeaz gainera, kilometroak be erosi daitezke Korrikari lagunduteko. Hurrengo batzarra hilaren 14rako ipini dabe. 7. orrialdea



### ARRATIA

## Indarkeria sexistaren kontrako gida

Arratiako Udalen Mankomunitateak indarkeria sexistari aurre egiteko Arratian dagozan baliabideak jasoten dauan informazio orri bat bananduko dau etxe guztietan. Bertan hiru telefono agertzen dira arreta osoa eta personalizaua eskeintzeko indarkeria sufriduten dagoan andreari. 5. orrialdea

### LEMOA

## Memoria historikoa lantzeako herri batzorde bat sortuko dabe

Urtilaren 24an, Lemoako Udalak 2013 urtean zehar herrian garatzeko Lemoako memoria historikoa lantzeako "proiektu kulturala" aurkeztu eban. Honen helburua memoria historikoa berreskuratzeko batzorde bat sortzea da. 8. eta 9. orrialdeak



**Tresnak**  
TRESNAK SUMINISTROS INDUSTRIALES, S.L.

Sortu zure kolorea,  
gura beste kolore...  
Zer gure, haxe eskure!!

Arraibi auzoa 14  
48330 LEMOA (Bizkaia)

94 631 30 20  
Faxa: 94 631 46 26  
tresnak@tresnaklema.com

# IGTIE

## ABIAN DA ARRATIAKO LEHENENGO KONSUMO TALDEA

Gauzak egiteko beste eredu baten sinisten dogu, lurra lantzeako, gure arbolak, landarak, ganadua jagoteko, elikagaiak ekoiztu eta familiei entregetako. Hurbileko eredu bultzatu gura dogu, konfiantza eta alkar ezagutzea oinarri dirala, baita konpromisoa be; lokalaren defentsa, gertutasuna, talde izaera, gardentasuna...

Horren arabera lortu daiteke ekoizpen duin eta agroekologikoa, elikagaiak bananduteko sare alternatiboak eta baita konsumitzaileak kalidadezko elikagai

osasuntsuz asetu, prezio eskurgarri eta natura errespetatuz.

Honen guztiaren aurrean, IGTIE baserriar agroekologikoen taldetik bertoko produktuak bertan konsumiduteko (km 0) bideak martxan ipini gura doguz: azokak, konsumo taldeak, ekonomatoa, eta abar. Salmenta zuzenak izan behar dau funtsezko, bitartekarien irabazi neurribakoak baserriar eta konsumitzaileen artean bananduz.

Bide honek jorratuz nekazaritza enplegu duina sortuko dogu, gazteak sektoreran integratu daitezkan ahalbideratuz.

Konsumo taldea zera da: konpromisoa. Konsumitzaile eta baserriarren arteko konpromisoa. Konsumitzaileak astero leku eta

ordu zehatz baten otzarea hartutakoa, eta baserriarrek otzara horreek sasoian sasoiko kalidadezko produktuak osatuta egotea.

Lehenengo pausu moduan Igorren hasi gara talde baten arduragaz. Lehen deialdi batzuk egin ziran funtzionamentuaren gaineko zehaztasunak ebazteko. Baserriar bat dago dinamizatzailer eta berak osatuten dau otzarok, konsumitzaile bakoitxak eskatutakoaren arabera. Hilabete eskaera itxia da eta hilabete hasikeran moldatuten da eta ordainketea hilabete amaieran egiten da.

Otzarak martitzenetan 19:30-20:30 bitartean bananduten dira Igorreko Kultur Etxean.

Informazio gehiago gura izan

ezkero bertara hurbildu edota igitie.k.taldea@gmail.com-era

idatzi. Animau eta parte hartu, Bizi osasuntsu!



### TELEFONO INTERESGARRIAK

#### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

#### Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

#### Zezeilaren 4tik 10era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g  
Tel.: 94 631 39 50

#### 22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

#### Zezeilaren 11tik 17ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

#### 22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

#### Zezeilaren 18tik 24ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

#### 22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

#### Urte osoan

#### 22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

#### Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

#### Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

#### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

#### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

#### Parketxea

94 673 92 79

#### Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

#### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

#### Trenak

Euskotren 902 543 210

#### Bizkaibus\* 902 222 265

#### Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

#### Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

#### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

#### Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

#### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

#### Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

#### Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

#### Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

#### Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

#### La Union\* 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

#### Babesleak:



Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Kudeatzailea:** Inigo Iruarrizaga.

**Erredakzino taldea:** Urtzi Barrenetxea, Julen Bilbao, Clara Luja Azpiri, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Inigo Iruarrizaga.

**Publizitatea:** Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjuregi eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.600 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazioak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zerbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Haxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutunak: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Gaixopeko



Gaixoa edo gaixobera danari, hau da, osasun aldetik makal dabilenari zein gatxak jota, itxura fisiko eskasa erakusten dauanari esaten joko gaixopeko. Agoskatu géxopekoa edo gexópekoa, agoskatzen da Arratian. Beste eskualde batzuetan, barriz, gaixoti edo erikor esaten da. Hamen adibide bat: Ni sekula be ez nintzateke ezkonduko gexopeko bategaz.

## ERETXIA

### Erronkea: bihar be sindikalismoa



#### MIKEL ETXEBARRIA

Ibaizabal Nerbioi-ko ELAko Eskualde Arduraduna

Owen Jones, idazle ingeles bat da. Blair-en laborismoagaz guztiz desengainaturik, bere aktibismoa eragile sozial desbardineta bideratu dau. Orain dala gitxi kazetari batek zera itaundu eutsan: "Ez dozu uste gaur egun gazte askok sindikatuak era pre-teknologikoko *antigualla* bezala ikusten dituela?". Owen-en erantzuna: "Zergaitik ulertu behar da antxinakoa dala langileak batzea eta alkarkidetzea gura izatea?". Erantzun bikaina.

Eta, orduan, gaur egungo Kapitalismoaren erasoaren aurrean zer? Legeak, komunikabideak, politikoak, polizia... euren alde daukie. Baina hau da kapitalaren tresnarik garrantzitsuenaren agenda aurrera erroteko? Guretzat langilegoaren eta gizartearen bildurrean, indibidualizazioan, identitate kolektibo ezan, eta antolakuntza ezan daukie bermerik potenteena.

Lehenbizi sindikatuak eredu ebatzi behar izan dabe edo behar izango dabe: edo eredu honen kontra gagoz eta antolakuntzea eta burruka bidez transformau eta aldatu gura izango dogu edo alkarrizketa sozial (nogaz?) edota bake soziala goraiatu (burrukari uko egiteko?). Nire ustean, duda barik, lehenengoa da sindikalismoaren bide zintzo, zail, baina bakarra.

Lehenbizi sindikatuok, argi euki behar dogu beharlekuetan eta kalean erantzun behar dogula.

Beharlekuetan langilegoa konzientzauz, erreferentzia organizatiboa eskeinuz, lan zentruak sindikalizauz aurre egiteko egunero topauko doguzan Patronalaren erasoai (Rajoy-ren erreformaren mehatxua, kaleratzeak, soldata beharpenak, txantaje desbardinak...). Ba ete errezeta

majikorik? Ez, baina badaukaguz tresnak: lan zentruetan beharginak egotea, asanblada desbardin bidez, edo banan-banan. Konzientzauz eta antolatuz lantokietako langileak burrukarako prestatzeko erasoai ondoen aurre egiteko. Hor daukaguz eskualdean burruka eredugarriak: Cementos Lemona, Alfus, Incoesa, Araluce... Eta beste kasu batzuk. Errealidadeak desbardinak izanda elementu komunak ditue: langileen antolakuntza eta konpromisoa ardatz izanda konfliktu bidez erantzutea (paroak, grebak, konzentrazioak, manifestak, piketeak...)

Eta noski kalean egon behar da, ez bakarrik enpresa eta lan zentruetako burrukai kale ikuspegi gehituz, baizik eta Kapitalaren "Shock" doktrineari erantzuteko. Zentzu honetan, gure ustean Kapitalismo neoliberala gaudituko dauan gizarte eredu konpartiduten dogun sindikatu eta eragile sozial desbardinakaz lanketa sakona egitea ezinbestekoa da. Ardatz minimoak konpartiduz, besteak beste, inongo menpekotasun bako eta interes partidariorik bako eragile sozial eta sindikalen artean modu zintzo eta horizontalean konpromisoak hartuz eta lan, konzientziazino eta mobilizazio agenda bat aurrera eroanez. Zentzu honetan goraiatu gura dogu 2012ko zezeiletik aurrera sortu dan Hego Euskal Herriko Gune Nazionala.

Ezin daikegu inor konfundidu: gatxa da bidea; antolakuntza, burruka eta mobilizazioarena; baina ez dago beste biderik. Klase burruka inoz baino aktualagoa da.

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tomea suzoa, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrea beharrez,  
euskeraz eginez

Enbata  
Batzon gaitu

MONDRAGON  
INDUSTRIAL CORPORATION

## LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Oscarretan dokumentalak irabazle, *again*

Urtero lez, aurten be Oscar sariaren emondia ikusteko aukerea izango dogu zezeil amaieran. Han egongo dira zinema izarrak, zuzendari (ustez) apartak eta mundu osotik etorritako paparazziak. Gau horretan arreta gehienez entzungo dan esaldia be ez da faltauko: "And the Oscar goes to..." . Zirku mediatico itzela. Zelan ez, aurtengo film saridungai batzuen barri danok dauka: Spielbergen *Lincoln* (film "europarra" Spielbergen berbetan, kar, kar, kar!), Tarantinoren *Django Unchained* (umekeria galanta), Ang Leeren *Life of Pi* (filosofia merkea), edo Michael Hanekeren

*Amour* (fikzino bako maitasuna), lau aitaturearren.

Oscarren helburu aitortua zein dan beti egon da argi: Hollywoodeko industria bultzatzea. Punto. Eta zelan lortu ahal da hori? Asuntoari glamour asko emonaz. Eta besterik? Bai, noski, inolaz be irabaziko ez dauan film atzerritarren bat tartean sartuz (*sorry, Mr. Haneke*). Glamourrak ikutu europar bat behar dau itxurazkoa ez ezik artistikoa be izan daiten. Possible da be inoiz industriatik kanpo egindako film merke baina zoragarriren bat aurkitzea, kolore apur bat emoteko baino ez bada be ("*And the Oscar does NOT go to Beasts of the Southern Wild*").

Tartea amaitu aurretik erantzun gura dodan itauna: merezi al dau Oscarrek jarraitzea? Nire ustez bai, baina dokumentalen kategoriako izentapenakaitik bakarrik. Adibide bikain bat, tamalez gehienok ikusteko aukera izango ez dozuena (eskerrik asko [www.kat.ph](http://www.kat.ph)) *Searching for Sugar Man* dokumental ikaragarria.

## ZERTZEAN



ITSASO BENEDICTO



## BEGI TXINDORRA

Gaur egun pitxerra hartuta inor iturrira joaten ez dan arren, iturriak jarraituten dabe baliotsuak izaten. Gurean izan daben garrantziaren idea leku izenak, baserriak eta abizenak emoten deuskue: Iturriondo, Iturrimorro, Iturriotz... Baita, akaso, euskerazko kanturik ezagunena dan *Maritxu nora zoaz* kantua.

Holan, Igorren herritar talde bat hurreratu zan udaletxera iturrien errekupezinorako proiektu batez eta Auzolanean barritzatuten dabiz iturriak: herritarrak beharra egin eta Udalak erremintak ipinita. "Iturriak katalogauta dagoz. Katalogoari kasu eginda aukeratu ziran batzuk, auzune guztiak ikututa, lehenengo faserako. Balorazio bat egin zan udaletxeko teknikoagaz ze konponketa eta ze material behar zan jakiteko" azaldu deutso BEGITURI Iñaki Iturriotzek, Udaleko komunikazio, herri parte-hartze eta herritarrakazko harremanak arlokoak. Konpondutako lehenengo iturria Orobikoa izan zan. Han garbiketea egin eta banku bat ipini zan. Hurrengoak Mikele auzuneko iturriak izan dira eta San Kristobalen be iturria eta labaderoa konponduko dabez igorretarrak.




**Lorategien Diseinu eta Gauzatzea**  
 Ureztaketa instalazioa  
 Mantenua eta Inausketa  
**LORAZAINTZA**  
 Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
 Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscl.com](mailto:gorosti@gorostiscl.com)


**Ortodontzia**  
 Implantaeak  
 Estetika  
 Marina Urigoitia Aidedoa  
 Odontologoa  
 Bidebarri 1, behea  
 48140 Igome-Bilakala  
 T. 94 631 50 39  
 Nafarroa Zerbaita 110  
 R.P.S. 25/06


**arratia ubide zeberio**

## LEMOA

# Enplegu suntsiketearen kontrako manifestazioa



Lemoako manifestazioan eguraldia ez eban lagundu.

### Erredakzioa

Berrehun eta berrogeta hamar lagun inguru agertu ziran "Enplegu suntsiketaren kontra, eskubide sozial eta laboralen alde" urtailaren 18ko manifestazioan. Manifestazioa Cementos Lemoako kanpalekutik abiatu zan eta Lemoako kaleak zeharkatu zituan udaletxe parean amaitu arte. Amaieran euskeraz eta gaztelaniaz irakurritako komunikatuan, "terrorismo patronala" salatu eta erreforma ez apliketako deia egin eban. Deitzaileak Arratiako hamahiru enpresa batzorde izan ziran: Cementos Lemoa, Incoesa, Tecnichapa,

Ormazabal, Tarabusi, Negarra, Gea-Iberica, Araluze, Alfus, Hierros Sancho, TMC, Aliasa eta Manufacturas Alfe, hain zuzen be.

### Lanpostu asko galdu dira Arratian

Bizi dogun egoerak bete-betean jo dau Arratiako industria. Enpresa batzuk zarratu, beste batzuk kanpora joan eta beste askotan kalera- tzeak egon dira. Holan, Cementos Lemoan 34 kaleratze egon dira, Negarran 30, Incoesan akordio bat lortu dabe 9 behargin ez kaleratzeko, Alfusen burrukan dagoz, Plasticos Ormazabal eta Auxiliar Siderurgica enpresak itxi dabez eta Ebay kanpora eroan dabe.

## BEDIA

# Alfusekoak burrukan

### Erredakzioa

Bediako Alfuseko beharginak astelehenetan lanixteak egiten hasi ziran urtailaren 21ean, eta akordiorik lortzean ez badabe, holan jarraituko dabe hilaren 11ra arte. Negoziazinorik egon ezean greba mugabakoari ekitea be planteetan dabe Alfuseko beharginak.

Igaz hasi ziran hitzarmena negoziatan baina "enpresek negoziatioa moztu eta berregituraketa bat egin eban. Uda ostean, barriro hitzarmena negoziatan hasi eta enpresek dino beste berregituraketa bat egin behar dala, baina ez dakigu zertan datzan" azaldu deuto BEGITURI Tamara Martin LAB sindikatuko sektoreko aholkulari arduradunak.

### Mobilizazioak

Hori dala eta, urtailaren 11n, Cementos Lemoako beharginak batera konzentrazinon bat egin eban Alfusekoak FCCren egoitzaren aurrean. Izan be, FCC enpresa bien jaubea da. Lanixteak egin dabez urtailaren 21 eta 28an eta zezeilaren 4 eta 11an be deituta dagoz. Greba mugabakoari ekingo deutesie hilaren 18tik aurrera akordiorik lortzean ez bada, LAB sindikatutik adierazotakoaren arabera.

## ARRATIA

# Andren kontrako indarkeriari aurre egiteko baliabideen gida

### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateak, Arratian dagozan baliabideak indarkeria honeri aurre egiteko jasoten dauan informazio orri bat bananduko dau. Honen helburua, informazioa emotea da, batez be, indarkeriazko egoeretan nora deitu behar dan jakiteko. Orri hau, Arratiako etxe guztietara bialduko dabe.

"Gidaren helburua informazioa emotea da, batez be baliabide telefonikoen gaineko zenbakiak, indarkeriazko egoeretan, ez dalako bat be erreza izaten inora joatea, lotsa emoten daualako, zer esango dabenaren bildurra... Hori dala eta, ezinbestekoa da telefono bidezko baliabideak azpimarratzea" azaldu dau mankomunitateak prensa ohar baten bidez.

Informazio orrian hiru telefono agertzen dira. Lehenengoa,

larrialdietan erabiltekoa: 112 telefonoa. Bigarrenen, 900 840 111 telefonoan, andreari entzun eta informazioa emoten jako. Telefono hau dobakoa eta konfidentziala da. Hirugarren telefonoa mankomunitateakoa da, 94 631 17 17. Hemen, dagozan baliabide guztien barri eta arreta osoa eta personalizua eskeintzen deutesie indarkeria sufriduten dagoan andreari.

### Desbardintasunaren ondorio larriena da indarkeria

Gidan gainera, andren kontrako indarkeria definitu eta indarkeria motak zehaztuten dira. Indarkeria honek andren duintasun eta osasun fisikoa eta psikikoa urratzen dauz, andra eta gizonen arteko desbardintasunaren ondorio larriena da eta andrea kontrolatuko eta zigortzeko erabilten da desbardintasun egoeran jarraitu daian.

## ARRATIA

# Mozorro egunak, jairik herritarrenak

### Erredakzioa

Mozorro lehiaketa ugari egongo da gurean Aratusteetan. Eskola guztietako umeak desfileak egingo dabez eskolan egindako mozorroakaz eta guraso alkarteak mozorro jaiak antolatu dabez ostean zerbaist jan eta sariak bananduteko.

Aurten, Aratusteak zezeilaren 7tik 12ra dira; zazpia da Eguen Lodia, Aratusteai hasikerea emoten deutesen eguna, eta hurrengo martitzenean, hilaren 12an, amaituten dira karnabalok. Izan be hurrengo eguna, Hautseguna, Garizumako lehen eguna da.

Mozorro jaiak herri guztietan egongo dira, guraso alkarteak, gazte asanbladak edota udalak antolatuta. Lemoan, barbarako, koadrilak, Gazte Asanbladak eta Udalak antolatu dabe alkarlanean egun osoko jaiak, hilaren 9rako. Hamabietan poteoagaz hasiko dira eta gauean erromeriagaz amaituko dabe mozorro jaiak. Igorren eta Diman be 9an ospatuko dabez Aratusteak; Areatzan, Artean eta Zeberion,

8an; eta Bedian eta Zeanurin 12an izango da mozorro jaiak.

### Igorren Arratiko Zekorrek koordinazio lanetan

Karnabalak sano jai herritarrenak dira eta herritar antolatuak zein antolatu bakoak hartzean dabe parte jaiaren antolakuntzan. Igorren, guraso alkarteak eta Gazte Asanbladaz gainera, Zaztaparrak aisialdi alkarteak edo merkatarien alkarteak (AME) be antolatu dabez ekitaldi batzuk. Dana koordinetan Arratiko Zekorrek Rugby Taldea dago.

Eskola-umeen desfileak, jolasak, babajanak eta ume zein nagusien mozorro lehiaketak emongo deutesie kolorea Aratusteai Igorren.

### Kanporamartxon txitxi-burrunzia

Kanporamartxo, Hautsegun aurreko bigarren domekan ospatuten da. Aurten zezeilaren 3an izan da. Arratian tradizio hau bizirik mantenduten da, eta herri gehienetan lagun taldeak, mendira edo ermitaren baten inguruetara joan ziran txitxi-burrunzia egitera. Arteako Kirol Kultur eta Euskera Taldekoak, barbarako, meriendea San Migelen egin eban eta Zeanuriko Joko Alaikoak, San Lorentzon euki eban txitxi-burrunzia ordubietan, goizean menditik buelta bat egin ostean.

## IGORRE

# Beste basogintza baten gaineko hausnarketea egiteko jardunaldia

### Erredakzioa

Leku bakotxaren ezaugarriak kontuan izanda, basogintza eredu desbardinak behar dira basogintza jasangarria eta errentagarria izan daiten. Hori dala eta, Igorre Bizirik-ek "Tokian tokiko basogintza alternatibei buruzko jardunaldia" antolatu dau zezeilaren 16rako, Arratiako basogintzearen gaineko hausnarketea bultzatzeko eta alternatiba egokiak pentsetako. Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan izango da jardunaldi hau, goizeko 09:30etik arrastiko 19:30ak arte. Basogintza teknikariak, basozainak eta paisajistak emongo dabe euren esperientzien barri, alternatiben gaineko eztabaidea zabaldu aurretik. *Baso Ahaztuak* dokumentala estrenauko da.

### Egitaraua

**09:30**ean, jardunaldien aurkezpena.

**10:00**etan, "Zerain, paisaia kulturala: lurra, ondarea eta herrilana dira etorkizuna". Jakoba Errekondo, paisajista.

**11:30**ean, atsedenaldia.

**12:00**etan, "Biomasaren erabilerak lokal baterantza, adibide bi". Ramon Ajuria Aramaioko alkatea eta Santi Uribe Otxandioko alkatea.

**13:30**ean, bazkaria.

**15:30**ean, "Mosaikoak eta baso mistoak mendi pribadu eta komunalean". Olatz Arrarte eta Claudia Maldonado, basogintza teknikariak, eta Pablo Zufiaur, basozaina.

**17:00**etan, atsedenaldia.

**17:30**ean, *Baso Ahaztuak* dokumentalaren estreinaldia



Basoa.

**19:15**ean, Agurra.

Bazkarirako izena emon behar da <http://igorrebizirik.wordpress.com> webgunean zezeilaren 9a baino lehen.

## ARRATIA

**Koruak eusten deustie tradizinoari gurean Santa Ageda bezperan**

Urtero lez, eta sano tradizino antxinakoari eutsiz, Arratiako Korua santa eskean urtengo da, zezeilaren 4an. Arratian eta Zeberion dozenaka koru egon arren, koru hau da famaduenetakoa gurean, 1951an sortu eta hutsik egin barik urtero urten dalako Agate Deunaren koplak kantetan Arratian eta Bilbon.

**Erredakzioa**

Aurten, Zeanuriko Jorge Truebaren zuzendaritzapean, Arratia, Zornotza eta Bilbotik ibilbidea egingo dau koruak goizeko zortzirik aldean hasita eta gaueko hamar arte. Diman eta Lemoan goizean kantetakoak dirala azaldu eutsan BEGITUri Jabi Arbek, Arratiako korukoak, eta Bedia, Igorre, Arantzazu, Artea, Zeanuri eta Areatzan arrastiz. Bilbon be, Begoñako basilikan

eta Zazpi Kaleetan, beste leku batzuen artean, Arratiako koruak tradizino luze honen emoitzea erakutsiko dau.

Ikasleak, parroquia koruak, koadrilak eta abarrek be euren korutxoak sortu eta preminaren bat betetzeko zein merienda bat egiteko eskean ibiliko dira Agate Deunaren bezperan. Igorren, parrokiako koruak misinolarientzat jasoko dau dirua, urtero lez.

Santa Ageda bezpera baino lehenago zarratu danez zenbaki

hau, testigantza grafikorik ezin dogu erakutsi, baina berandu baino lehen gure webgunean izango dira argazkiak inork ikusi gura izatekotan.



Agate Deuna bezperan koru bat kantetan.

**Santa Ageda ermitan Zeanur-  
in 10ean**

Arratian Agate Deunaren koplak kantetan ibiltzen diran koruak asko izan arren, aitatzekoa da Zeanuriko Santa Ageda ermitan egiten dan hurrengo domekako mezea. Bertan, gizon koru batek santearen martirioa deskribatzen dabezan koplak kantetan ditu. Aurten, hilaren 10ean izango da goizeko 12:00etan.

## AREATZA

**Internet bidezko parte-hartzea bultzatu dau Udalak****Erredakzioa**

Zeukesanareatza.com webgunea ipini dau martxan Areatzako Udalak eta honen bitartez, herritarrek, eztabaida foroak sortu, herria hobetzeko proposamenak egin, inkestak bete eta informazioa jaso daikie. Daborduko hiru eztabaida foro sortu dira Zeuk Esan Areatzan: Oinezkoentzako guneak Areatzan, Animaliekin bizikidetasunaren aldeko eztabaida eta Zer egin dezakegu bertako komertzioa bultzatzeko.

"Atari barriak parte hartzeako hainbat aukera emoten deutsez erabilzaileai, eta, besteak beste, eztabaidarako espazio bat eskeintzen dau, erregistrautako personak euren foro propioak sortzeako, komunitadeko oharrak iruzkindu eta bozkatzeko, eta alkarrizketak sare sozialen bitartez konpartiduteko. Era berean, atxikimenduak barteako herri-ekimenak aktibau ahal izango dira, eta Osoko Bilkuran gai jakin bat lantzeako proposamena egin ahal izango jako Udalari" di-  
noe Areatzako Udaletik.

Inkestak, albisteak eta udal ku-deaketeagaz lotutako informazioa be topau daiteke webgune honetan eta ataria osotuteko, profil barria be egin da Facebook sare sozialean, atarian sortzean diran eztabaiden barri emoteko asmoz.



na gitxiegia nagusien zaintzarako: Medikauto eta Jubiladuen Etxea baino ez daukie Lemoan.

Aisialdia eta parte-hartzea be sano berezita dagoz andra eta gizonen artean.



Batzarrera hurreratutako batzuk.

**Lanean eta aisialdian berezita**

Gizon eta andren jarduera eta espazioak sano berezita dagozala ondorioztatzen da txosten honetatik. Dana dala, gizon zein andren jarduera eta okupazio tasa Bizkaikoa eta EAEkoa baino apur bat altuagoa da Lemoan eta familiei jagokienean, familia nuklearraren pisua (hau da bikotea seme-alabakaz) txikiagoa da Igorren baino Legarretaren esanetan.

Zaintzarako baliabideai jagokienean, umeen zaintzarako nahikoak dirudie: Haur Txokoa, Ludotekea, Gazte Lekua, eskolako zaintza zerbitzua, Oinezbusa eta eskolaz kanpoko jarduerak; bai-

tzak proposatuz.

Zeramika taldeko andrak, Gazte Lekukoak, jantza taldekoak, Lemoako Abesbatzakoak, txosnagunekoak eta mendekotasun egoeran dagozan personak jagoleak hartu eben parte eztabaidan, beste batzuen artean. "Jente askok hartzean dau parte: neska eta mutil gazteak, edadekoak, etxean zein kanpoan behar egiten dabenak..." azaldu eban Legarretak.

## LEMOA

**Behin-behineko parekidetasun diagnostikoa aurkeztu da****Erredakzioa**

Martiaren 8rako behin-betiko diagnostikoa prest egotea espero dau Idoia Legarretak, Lemoako diagnostikoa egiten dagoan lan-talde teknikokoak, baina urtailaren 29an txostenaren aurkezpena eta parte hartu daben eragileakaz eztabaidea egin eben. Zezeilan, ekintzetan zentrauko dirala dino teknikariak, parekidetasuna lortzeako ekin-

**Oparitu BEGITU-lagun!**

Egizu zure laguna BEGITUren harpidedun \* Deitu 649 979 115 telefonora eta otzara bete kultura oparitutako deustazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarrizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

35€, 55€  
edo 75  
Euroren truke

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO



## ARRATIA



# Arratiako Korrika batzordea abiatu da

AEK-k antolatuten dauan Korrikaren 18. edizioa, Andoainetik abiatuko da martiaren 14an eta 24an amaituko da Baionan, Euskal Herria zeharkatu eta 2.350 km baino gehiago egin ondoren "Eman euskara elkarri" lelopean.

### Erredakzioa

Arratiako nondik norakoak jakiteko eta proposamenak egiteko 10 herritar batu ziran urtailaren 31n Igorreko Kubulu euskaltegian, Arratiako Korrika Batzordearen lehenengo batzarrean. Herrietan egin beharreko lanak be zerrendatu eta banandu ziran bertan.

Dana dala, konpromiso maila eta laguntzeko modu desbardinak dagoz. "Korrikan parte hartzeako moduak askotarikoak eta anitzak dira. Laster hasiko gara Korrika Txiki zehazten, ibilbideko kilometroak saltzean eta Korrika

Kulturala prestatzen" dinoe AEK-koak.

### Arratian martiaren 21ean

Euskarearen aldeko lasterketa handi hau martiaren 21ean, goizez pasauko da Arratiatik. Korrikan parte hartzeako modu bat, kilometroa erostea litzateke, hau da, diruz lagundutako kilometro bat egin. "Aurten kilometroaren prezioa mantentzen egin da. Erosi gura izan ezker, arratia@ae.org edo miren-m.t@ae.org helbidera idatzi edo 690 389 135 telefonora deitu behar dabe interesatuak.

## ARRATIA

# Maitasuna dirua baino gurago dabe gure internautak

### Erredakzioa

Begitu.org-ko gure inkesteari erantzun deuseenak gurago dabe maitasuna dirua baino. Izan be, dirua eta maitasunaren artean aukeratu behar izango balebe, % 80k maitasuna aukeratu leukiela erantzun dabe.

Hile honetako itauna, "Uste dozu justizia bi dagozala, bata aberatsentzat eta bestea pobrentzat?". "Bai", "Ez" eta "Herrialde batzuetan bai" dira erantzun posibleak.

### Irakurleon kolaborazioa

Agate Deuna bezperako, Aratusteetako eta kanporamartxoko hainbat argazki sartuko doguz begitu.org gure webgunean. Dana dala, irakurleon kolaborazioa eta zuon argazkiak argitaratu gurako geunkez. Argazkiok BEGITUREN irakurleakaz konpartiduteko, begitu@topagunea.com helbidera bialdu.



## ARRATIA

# Fracking Ez mozinoa onartu da Zeberion, Diman eta Igorren; Areatzan ez

### Erredakzioa

Fracking-etik libre dagoan herria izentatzeko mozinoa onartu dabe Zeberion, Diman eta Igorren. Azken herri honetan EAJ-PNVren eta Igorre Danontzat-en abstentzioakaz. Areatzan, ez zan mozinoa onartu EAJ-PNVk kontrako botoa emon ebalako. Zeanuri, Artea, Arantzazu, Lemoa eta Bedian udal batzetatik pasau barik dago oraindino.

Igorre Bizirik eta Arratia Bizirik talde ekologistak mozinoa landu eta udaletxeetan sartu eben. Igorren, Igorre Bizirik eta Arratia Bizirik taldeak, eta beste udaletan Bilduk aurkeztu eban mozinoa.

Fracking edo haustura hidraulikoa, Estatu Batuetako estatu batzuetan batez be, erabilitako gasa ateratzeko teknika da. Sakonera handitan eta hatx iragangaitzetan dagoan gasa ateratzeko erabilten da. Europako herrialde batzuetan galarazota dago ur kantidadean

diak kutsatu eta lur azpian egiten diran leherketak lurrikarak sortzean ditalakoan.

Arratiako zatirik handiena harra-patzen dauan Saia baimena, SHE-SA (Euskadiko Hidrokarburoak) enpreari emon eutsan Eusko Jauriaritzak abenduaren hasieran. Baimen honek, sei urtez, frackinga garatzeko ikerketak egitea ahalbidetzen dau.

### Areatzak mugabako luzamentua

Areatzan, abenduaren 26ko Udalbatzan atzera bota eben mozino hau, lau boto alde eta bost kontra izan zituan eta. "Uste dogu daukaguzan baliabide energetikoen barri jakin behar dogula. Baina ikerketearen ostean eta ekonomikoki egingarria balitz be, gasaren ustiaketarako mugabako luzamentua eskatuko geunke" azaldu deutso BEGITURI Josu Basozabal Areatzako alkateak.

## ARRATIA

# Mankomunidadeak Internet bidez lana topetako ikastaroak antolatu ditu

### Erredakzioa

Curriculuma egiteko, webgune eta sare sozialen bidez lana topetako eta enplegu bulegoak ezagutzeko beste gauza batzuen artean mankomunidadeak 18

eta 29 urte bitartekoentzat ikastaroak antolatu ditu.

Ikastaroak Arteako Kultur Etxean izango dira arrastiko 17:00etatik 19:30era; zezeilaren 19, 21, 26 eta 28an euskeraz eta 5, 7, 12 eta 14an gazteleraz.

## BEDIA

# Incoesako greba mugabakoa bertan behera geratu da

### Erredakzioa

Urtailaren 16an, greba mugabakoa hasi baino ordu batzuk lehenago, Incoesa enpreak eta beharginen ordezkariak akordioa sinatu eben. "Akordio hori, aurrekoan Administrazio Kontseiluak atzera bota ebanaren termino bardinetan oinarritzen da. Langileak grebarako deialdia egin eben enpreak bete daian hartutako konpromisoa eskatzeko,

eta 9 lankidek euren lan-postuak berreskuratzeko. Horrezaz gainera, bien partetik adostu da alkarriketeari ekitea Hitzarmen eta Enprearen Bideragarritasun plana ituntzeko asmoz" azaldu dabe LAB sindikatutik.

Azkenengo momentuko akordio honen barri BEGITUK internet bidez emon eban hurrengo egunean, urtailaren 17an, akordio hau BEGITU inprentan zala lortu zan eta.

**KARMENGO AMA IKASTETXEA**

HEZKUNTZA ESKEINTZA: 0-16 urte.  
HEZKUNTZA PROIEKTUAREN JARRAIPENA: "El Carmelo" Ikastetxea.

**MATRIKULAZIOA:**  
Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra.  
**ATE IREKIAK**  
Otsailak 2 11:00h

**GURE ARDATZAK:**

- Pertsonaganako arreta.
- Giza eta Kristau BALOREAK.
- Euskera eta Euskal Kultura.
- Jasangarritasuna.
- Kalitatea Hezkutzan

**GURE ERRONKAK:**

- ◆ Barrikuntza Teknologikoa  
First Lego League, Scratch, Camp Tecnológico oportetan...
- ◆ Alkartasun Proiektua: Gikore (ONG Educ@s).
- ◆ Aniztasunaren trataera:  
Laguntza gelak.  
Curriculum Anitzeko Programa (DBH 3-4).
- ◆ Hizkuntzak eta Komunikazioa:  
Ingelesa 3 urtetik gora. Hirugarren hizkuntza, alemana.

**BESTE BATZUK:**

- JANTOKIA: janaria bertan kudeatu eta egiten dogu.
- Instalazio zabalak, 15.000 m<sup>2</sup>

[www.karmengoama.net](http://www.karmengoama.net)

## MEMORIA HISTORIKOA

# Lemoatxeko bataila gogoan, 76 urte beranduago

Urtilaren 24an, Lemoako Udalak 2013 urtean zehar herrian garatzeko Lemoako memoria historikoa lantzeako "proiektu kulturala" aurkeztu eban.



Begoña Gorritxo, Eduardo Gonzalez eta Aitor Erazukin.

## Erredakzinoa

Aurkezpen honen helburua batzorde bat sortzea zan memoria historikoa berreskuratzeko eta Lemoan 1936ko gerran eta frankismoan gertatu zana jakitera emoteko. "Udala izango da laguntzaile aktiboa, baina batzordeak eukiko dau bere izaera autonomia" azaldu eban Aitor Erazukin Kirola, Kultura eta Euskera zinegotziak. Dana dala, herriko eta kanpoko eragileen kolaborazioa beharko dau Batzordeak lan hau ondo egiteko, batez be infomazinoa biltzeako. Izan be, lan hori eginda dago herri askotan eta ikertzaileak eta memoria historikoa berreskuratzen saiatzen diran alkarteak informazio asko jaso dabe. Aurkezpenean, herritarraz batera, memoria historikoa lantzean daben alkarteen plataforma batego ordezkariak eta Lemoatxen bururatu eban Gorritxo komandantearen alabea egon ziran, besteak beste.

"Orain dala 76 urte Lemoan

gertatu zan episodio bat gogoratzeko batu gara: Lemoatxeko bataila" esan eban Erazukinek eta bere eretxian, Batzordeak, "gertaera horretatik abiatuta, memoria historikoa berreskuratzeko informazio bilteta sakona egin beharko leuke eta lan horretan baliabide tekniko eta ekonomikoakaz lagunduko leuke Udalak".

Batzorde honetan parte hartzeako hurrengo bilera, zezeilaren 7an izango da, 19:00etan Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

## Dibulgazinoa ala erreparazinoa?

Proposamena Udaleko Kirola, Kultura eta Euskera batzordeak egin arren, memoria historikoaren lanketea, herritarraz osotutako batzordeak egitea da Udalaren asmoa. "Batzordeak berak ebatziko dau zenbatero batu, ze ekintza egingo dituan seihileko honetan eta zelan landu memoria historikoa" esan eban Erazukinek.

Planteetan eban proposa-

menean, helburua jentek zer gertatu zan Lemoan jakitea dala esan eban Erazukinek "Lemoan oso ezezaguna da Lemoatxeko bataila hau eta helburua belaraldi barriak egun latz horreetan Lemoan zer gertatu zan gogora arazotea da. Gure ustez, honen lanketearen helburua dibulgazinoa da".

Ez zan eretxi berekoa aretoan egoan Eduardo Gonzalez, Lau Haizetara Gogoan memoria historikoa berreskuratzeko plataformako kidea. Plataforma honen inguruan hogei bat alkarte batzean dira, tartean, Durango 1936 edo Basauriko Oroimena eta Bilboko taldean CNT, Eusko Lurra Fundazioa eta Sare Antifaxista dagoz. Honeen ustez, "omenaldiak egitea ondo dago baina harago joan behar da". Plataforma honen helburua "frankismoa Giza Eskubideen Auzitegiatara" eroatea da, genozidio bat izan zalako eta frankismoaren biktimentzat "egia bilatu, justizia ezarri, erreparazinoa gauzatu eta ez erreparatzeko bermeak" ipini behar diralako.

Hauxe eskatzen deutsee memoria historikoa bultzatzeko politika publikoai. Euskal Herriko Egiaren Batzordea sortzea be, euren helburuetako bat da.

## Herritarraz eta kanpokoak alkarlanean

Helburua edozein izanda be, dokumentazioa batzea eta oraindino bizirik dagozan lekukoak alkarriketaz egin beharreko gauzak dira. "Lehentasan handia dauka Lemoatxeko batailea bizi izan eban jenteari alkarriketak egiteak. Hareen testigantzak beharrezkoak doguz Lemoan gertatu zana jakiteko, eta lehenbailehen egin behar dira urte asko pasau diralako eta gero eta lekuko gutxiago dagozalako" esan eban Emilio Olibaresek, Kirola, Kultura eta Euskera Batzordekoak. Alkarriketa honek egiteko, zein sasoi haretako argazkiak eta dokumentazioa eskuratzeko, herriko jentearen laguntzea ezinbestekoa da, lemoaztarren etxe eta kamaretan gordeta egon daitekezalako dokumentuok.

Iturri hori ezinbestekoa izan arren datu barriak lortzeako, informazio asko batuta dago. "Informazio gehiena kanpo eragile batzuek daukie eta honeen kolaborazioa ezinbestekotzat jotzen dogu gai hau ondo landuteko: Aranzadi, Ahaztuak, Gernika Batzordeak, Sabino Arana Fundazioa, EHU..." azaldu eban Erazukin eta Olibaresek. Lemoatxeko batailan hildakoen kopurua Lau Haizetara Gogoaneko Eduardo Gonzalezek emon eban: 141 lagun.

## Alkarriketak datu barriak jasoteko

Aretoan egozan guztiak bat etozan lekukoak alkarriketaz presa handiko kontua danaren eretxian. Baina plataformaren arabera, alkarriketak ezin dira edozelan egin eta alde zurretik ondo prestatu behar dira. "Tribunaletan balioko daben datuak jasoteko, ondo landutako galdetegi bat eroan behar da" Gonzalezen berbetan. Helburua biktimentzako justizia lortzea bada behintzat, ez da nahikoa orduko giroa eta bizi izandako sentipenak transmitidutea, Auzitegi baten baliogarriak izan daitekezan lekukoak dakien datuak eskatu behar jakoz alkarriketa-

Udalaren helburua,  
gerran eta gerraostean  
Lemoan gertatu zana  
jakitera emotea da

Lau Haizetara Gogoanek  
Euskal Herriko  
Egiaren Batzordea sortu  
gura dau

Zugaitik BEGITUten dogu  
A.P.I. 495  
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre

Tfnoa: 94 631 80 04

Kendall Languages

- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz

- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea

Elxalde 4 behea - 48.140 Igorre (Bizkaia) - 94 657 73 48 - www.kendall-languages.com

ASESORIA  
**Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza

Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com





ermitearen garbiketea eta egokitzapen beharrak be.

Auzolandegietan, Euskal Herri-kanpotik etorritako gazteak egiten dabe behar eta hori Eusko Jaurlaritzaren bitartez antolatuten da. Horregaitik epe barruan sartzeko eskaerea eginda egoala emon eben jakitera Udalekoak. Udal Auzolandegi honen arduraduna Mikel Garcia, Lemoako Gazte Teknikaria litzateke eta berak aurkeztu eban auzolandegien eginbeharra eta gerrearen arrastoak non geratzen diran erakutsi eban. Auzolandegien bidez hiru gauza egin gura dabez Lemoan: ermitea konpondu eta beste erabilera bat emon, zuloan dagoan gerrako materiala atera eta trintxerak berreskuratzea.

Proiektua aurkeztuta dago Eusko Jaurlaritzan. Auzolandegiok garagarriko bigarren hamabostaldirako eta abuztuko lehenengorako eskatu dira.

#### Film bat

Udalaren proposamenen artean, Lemoan gertatu zanaren gaineko film bat egitea be badago, EITB-ren laguntzeagaz. Hori egiteko aukerak aztertzeke batzorde bat osotu da eta zezeilaren 1ean batu ziran ideari formea emoten hasteko.

tuari. Hortik, alkarrizketea ondo prestatzearen garrantzia.

Herritarrek osotutako batzordeak zer landu, zein helburugaz eta ze ekintzak egingo dituen ebatziko dauan arren, epe administratiboak dirala eta, Udaleko Kirola, Kultura eta Euskera ba-

tzordeak proposamenagaz batera, ekintza batzuk abiatuta zituan.

Udalaren proposamenen artean trintxeren arteko ibilbide gidatua eta Bizkaiko Burdinezko Gerrikoaren inguruko berbaldiak egozan. Baita auzolan eta Auzolandegien bidez San Antolin

## 1936ko gerrea BEGITUN

2012ko udan, Lemoatxeko batailaren 75. urteurrena bete zanean, gai hau hartuta BEGITUK lau erreportaje atera ebazan Begitandu sailean.

Lehenengoa 167. zenbakian. Angel Larrea eta Iñaki Esparza Arratia Institutuko historia irakasleak egin eben eta "Gerra Zibila Arratian" titulupean Aramotz mendikatean eta Lemoatxen izandako batailen barri emoten da bertan.

Bigarrena, 168. zenbakian, Agirre Lehendakariaren Lemoatx errekueterako agindua eukan Gorritxo komandantearen alabeari alkarrizketea izan zan. Begoña Gorritxok bere aitaren memorien liburua aurkeztu eban Durangoko Azokan 2011n.

Hirugarrena, 169. zenbakian, "Saturrarango andra preso lemoaztar ha..." izan zan, Ander Leon Nanclaresek sinatuta. Leon Nanclaresek Saturrarango kartzelaren gaineko ikerketan parte hartu eban. Ikerketa horretatik *Izarren Argia* filma egin eben.

Azkena, 170. zenbakian, Jon Urutxurtu historialaria eta BEGITUREN kolaboratzaileak egin eban. Zenuzittarrak, gerratik igesi Arratiatik erbesteratu ziran umeen historiak jaso zituan "1937ko Arratiako ume erbesteratuak" artikuluan eta abadeen lanaren barri emon eban "Abade arratiarrak Erresuma Batuko ume erbesteratuen kolonietan" izenekoan.

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza  
estlabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak  
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)  
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

## MENDIA



Alex Txikon walkitik berbetan.

## Laila Peak-en gora doaz Txikon eta espedizinokideak

### Erredakzioa

Hamar egun baino gehiago Karakorum-en eta bigarren kanpalekurako saioak egiten dabiz Txikon eta bere espedizinokideak Laila Peak mendian gora. Hotz handia, -20°C behoko kanpalekuan baina holakoa dala negua dino Txikonek: "Atzo kanpo basean 20 gradu zero azpitara egon ginan, hau da neguko espedizinoa. Bakardadea, baina bakardadean barruan, gauza handiak dagoz. Sokalagunen arteko loturea handia da, taldeko giroa apar-

ta da, eta ez dogu behar besterik. Saiatuten gara gauza gitxigaz aurrera ateraten egoera, ointxe elurra botaten dau baina gauza gitxi. Datozen ordutarako deskantsau, afaldu eta lotara. Gure denda personalen barruan, gauetan 12-15 gradu zero azpitik marketan deusku termometroak, beraz eropak kendu eta lo egiteko zakura azkar-azkar sartzean gara. Bestela hemen egunak oso oso lasaiak dira, musikea entzun motibazioa gora ekar-teko, irakurri eta solasean taldekideakaz" dino Txikonek bere webgunean.

## PELOTEA

## Zeanuri eta Lemoa Arratia-Nerbioiko finalean

### Erredakzioa

Hilaren 16an izango dira Arratia-Nerbioiko finalak Lemoan. Zeanuri eta Lemoako eskolak heldu dira finalera, Zeanuri 5 kategoriatan eta Lemoa kategorian bitan. B taldean be jokatu dabe finala Lemoakoak Gaztetxoak kategorian.

### Lemoan pelota eskolen festa

Pelota eskolen zita nagusia Lemoan izango da aurten. Bertan, eremu honetako ehundaka pelotari gazte batuko dira finala ikus-

teko eta euren eskoletako pelotariak animetako. Goizeko 11:00etan, Kadete, Gazte eta Nagusien finalak izango dira. Nagusien mailan Zeanuri vs Lemoa derbia jokatu da. Kadete mailan Zeanuri eta Orozko neurtuko dira eta Gazte mailan Zornotza eta Arrankudiaga.

Arrastian, 16:30ean hasita, Aurreume-toak eta Umetxoak kategorietan Zeanuri eta Orozko neurtuko dira; Umeak kategorian Zeanuri eta Usansolo eta Gaztetxoak kategorian Lemoa eta Zornotza izango dira txapela lortzeako lehian ibiliko diranak.

### B finalak Usansolon

B taldeko finaletan Lemoa da Arratiako ordezkari bakarra. Final honeek Usansolon jokatu dira hilaren 9an.

Aurreume-toak kategorian Usansolo B vs Orozko C; Umetxoak mailan, Orozko B vs Usansolo B; Umeak Usansolo B vs Zornotza B; Gaztetxoak Lemoa B Orozko Bren kontra eta Kadete mailan Orozko B eta Arrigorriaga B neurtuko dira.



# www.begitu.org

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com



**indar**  
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
t. 94 655 47 19  
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

**begitu**  
anata ubide siberia

AKETEGIA  
GAY & LORA  
IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala  
**San Miguel**  
Ardoak Edariak  
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloa (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN  
**ZUZENBIDE**  
ZERGA ETA DIRU BONTUETAN  
ONDASUN HIGIEZINEN  
ASIGURUTAN  
Galdos Irujo, 5-1. floor 48101 11-41 - Fax: 94 673 04 05 - 48101 0099

**axular**  
kultur ofiziala  
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.a.**  
CONSTRUCCIONES  
LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTSU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK  
Ituriztze barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

**Pinturas Arratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**AIZKOREA**

**Atutxa II eta Mugertza IIak finalerdietako lehenengo norgehiagokea galdu eben**

**Erredakzioa**

Aitzol Atutxa dimoztarrak eta Ugaitz Mugertza mutrikuarrak osotutako bikoak, Eusko Label Binakako Aizkora Txapelketan finalerdietarako pasea lortu eban Lopez de Azpilikueta eta Senosiaineri irabazita. Finalerdietan, Atutxak eta Mugertzak lehenengo neurketea galdu egin eben Otaegi eta Otañoren kontra.

Otaegi eta Otañok 19 minutu eta 17 segundotan ebagi zituen 32 enborrak eta Atutxa eta Mugertzak 21 minutu eta 32 segundo behar izan zituen beharra amaituteko. Honeek, finalera heltzeako irabazi behar izango deutsee gipuzkoarrai 2 minutu eta 15 segundoko baino alde handiagoa atereaz hurrengo saioan. Neurketa hau Mendaron izango da hilaren 10ean.



**Aitzol Atutxa.**

**ZIKLO-KROSA**

**Mikel Epalza lemoaztarra Bizkaiko txapelduna Master-30 kategorian**

Berrizen lehiatu ziran ziklo-krosari bizkaitarrak urtailaren 19an, eta ikusle ugari erakarri ebazan bertara eguraldi onak.



**Mikel Epalza Berrizen.**

**Julen Bilbao**

Giro eguzkitsua izan arren, zirkuitua ez zan erreza izan, baina lehiakide arratiarrak barriro be maila altua erakutsi eben ibilbidearen desnibel handiari aurre egitean. Bizkaiko Txapeldun urten eban Mikel Epalzak Master-30 kategorian. Izan be, azken probatan agerian gelditu zan lemoaztarra sasoi onean ebilela. Eta denporaldi osoan batutako emoitza onen eta egindako lan gogoraren ondorio logikoa izan da Epalzak txapela eskuratzea.

Master-50 kategorian, aitzatekoa da Opel Ibaiganeko Jose Antonio Mazairak bigarren egin ebala; benetan be merituzkoa da kirolari honen erregularitatea. Era berean, Elite mailan be, arratiarrak Bizkaiko podiumean izan ziran: Erlantz Uriarte bigarren postuan eta Julen Zubero hirugarrenean.

Ziklo-kros denporaldiari amaiera emoteko, Burgosera eta Ispasterre hurreratu ziran gure ziklo-krosariak. Hilaren 26an, Gaztela eta Leongo Txapelketan, Erlantz Uriarte, Julen Zubero eta Mikel Epalza na-

barmendu ziran. Uriarte hirugarren gelditu zan, Zubero laugarren eta Epalza hirugarren Master-30 kategorian. Hain zuzen be, Burgosera izan zan atzenengo zitea Master kategorietakoentzat.

Denporaldiaren itxiera zirkuiturik gogorrenetarikoa izan zan, Ispasterreko proba internazionalan. Erlantz Uriarte izan zan arratiar bakarra domekan, hilaren 27an, eta bere erregularidadearen erakusgarri izan zan lortutako hirugarren postua.

Denporaldiaren balantze oso positiboa egin geinke, beraz, ziklo-krosari arratiarrai jagokienez. Elite mailan, Erlantz Uriarte oso erregularra izan da eta beti onenen artean mantendu da; bestalde, Julen Zubero be papel ona egin dau parte hartu dauan karreretan, behin baino gehiagotan emoitza harrigarriak lortuta.

Eta zer esan Master-30 kategorian Mikel Epalza, Lander Peña eta Mikel Nuñezek eskuratu dabazan lorpenai buruz, karrerarik karrera gogor baino gogorrago lehiatuta. Eta gauza bera esan geinke Jose Antonio Mazairaren gainean, emoitza itzelak ekarri ditu-eta Opel Ibaigane taldearentzat.

Amaitzeko, kadete eta junior kategoriak aitatu beharra dago, nahiz eta goiko postuetan ibili ez. Ziklo-krosa ez da bape disziplina erreza eta komenidu da AZEko gazteak animetea, interesa galdu ez daien. Eutsi gogor, neska-mutilak!

Eskerrik asko parte hartzaile guztia, emon daben espektakulu itzelagaitik. Orain, zaleak Munduko Txapelketari begira egongo gara, ea euskaldunak beren indarra agertzen daben; Aitor Hernandez eta Javier Ruiz de Laminagaren emoitza adi egongo gara arratiarrok.

**FUTBOLA**

**Arratiako taldeak partidu guztiak irabazten dabiz**

**Clara Luja Azpiri**

Euskal Ligan dagozan CD Arratia taldeko neskak azken partidua irabazi deutsie Hernani taldeari, bost eta bi. Hamaseigarren jardunaldiko partidu hau zezeilaren 2an jokatu zan, Hernaniko Zubipe zelaian. Emoitza honegaz arratiarrak Hernanikoakzoko puntu bardinketea apurtu dabe, sailkapenean gora eginaz. Hamabosgarren jardunaldiko partidua be irabazi eben, zazpi eta huts Arizmendi KE taldearen kontra. Azken partidu honen ostean Arratia sailkapenaren bosgarren postuan geratzen da. Hurrengo partidua 17ko astegoienean izango da, Peña Athletic Santurtzi taldearen kontra Igorren, baina oraindino ez dago eguna eta ordua zehaztuta.

**Gizonak be irabazi**

Lurraldeko Lehentasunezko mailan dagozan mutilak be irabazi dabe jokaturako azken partidua, bi eta huts Lekeitio "A" taldearen kontra. Urbieta zelaian jokatu zan partidu hau, Igorren. Aurreko asteko partidua be irabazi eutsien Baskonia taldeari bat eta huts. Hurrengo partidua Indautxu taldearen kontra izango da, hilaren 9aren arrastiko bost terdian Bilboko Iparralde zelaian. Hogeigarren jardunaldiko emoitzen ostean, Arratia sailkapenaren ha- maikagarren postuan dago.

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoak  
Juan de Ajuirierra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**Dia %**  
**PEDRO AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
Anda, Los Chopos, 33 (Nogai) Tel.: 94 430 40 94  
**Esposizinoa eta fabrikea Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**ZEKUTZE**  
JATEZEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutzejatez@netmail.com

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

Umeen moda 0-20 urte  
**\* Kolekzino barria**  
**\* Merkealdia**

**\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA**  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 631 92 00

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnua 649 86 95 36

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

zezeilak  
**17ra arte**  
**sein**  
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 946 394 296  
seim.moda.5@hotmail.com

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ  
Baimenak: A1, A, B1E, B  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@euskalnet.net

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 36 31, Faxa 94 673 70 83  
e-posta: unokau@euskalnet.net

## SAN BALENDIN

## Igaztik artea zenbat hazi dan neurtuko dabe Zeanurin, Eleizondon

Piedadeko artearen neurketaren 54. urteurrena betetzen da aurten.

## Jon Urutxurtu

Aurten be San Balendin jaiak ospatuko dira Zeanuriko Eleizondo auzoan, Piedadea izenez ezagutzen dan ermitearen iguruan, zezeilaren 17an, domekan.

Egitaraua apala, baina, aldi berean, bitxia antolatu dabe eleizondoztarrak: 11:30ean mezea izango da Andra Mari parrokiari; meza ostean, San Balendinen irudia parrokiatik 50 bat metrora dagoan ermitara eroango dabe prozesinoan, datorren urtera arte bertan ixteko, eta jarraian ermitearen aurreko artearen neurketeari ekingo deusie. Neurketaren aktea sinatu eta gero, aurtengo maiordomoak, Sebastian Gortazarrek, datorren urtekoari, M<sup>a</sup> Luisa Emaldiri, agiri-liburua eta ermitearen giltzea pasauko deusaz. Ondoren, barauskarria —urdaia, pami-xea eta ardaia— bananduko

da bertara hurreratzen diranen artean. Ekintza horreek herriko txistularien doinuen eta bertolarien kantuen artean burutuko dira.

Egitarau honetan aitagarria da orain dala 54 urte eleizondoztarrak hasi eben ekintzea: Piedadeko artearen neurketea.

## Artearen neurketea

Sebastian Gortazar, aurtengo maiordomoaren —emitearen eta jaiaren gorabeherak antolatzear arduratzen dana— arabera, "Piedadearen aurrean dagoan artea, lehenago leku berean egoan beste baten ordezkia da; 1958 urtean landatu eben gure aurrekoak. Hurrengo urteetan, San Balendin egunean edota San Balendin eguna ospatzen zan domekan —gonbit egunean— batzuetan bazkalostean, eta beste batzuetan afalostean, jai giroan, bolanderak botaz,

bertsoak abestuz... artea neurtu egiten eben. Neurtzeaz Gorordo baserriko Zeferino Lejarreta arduratzen zan. Eta neurtu ostean, jai amaitutzat emoten zan. Zeferinoren kuadernoetan lehen urteetako neurketen zehetasunak aurkitu doguz; lehenengo neurketea 1959koa da, eta zera irakurri daiteke bertan: *La medida de la encina de la Piedad, en los años medidos. Grueso a la altura de 1,50: 0,18*. Tradizino hau apurka-apurka galdu egin zan eta azken neurketea, Kandido Intxaurregak egin eban 1999an; papeltxo baten zera idatzi eban: Piedadeko artea. 99-2-14. a 1,50 circunf.: 1,50".

Aurrekoak hasitako ohituea ez dabe galtzean itxi gura eleizondoztarrak, eta maiordomoak dinoanez, "2007an neurtzen hasi ginan barriro, eta 2008an neurtzeaz gainera, agiri-liburua zabaldu genduan, bertan neurtzaileak, maiordomoak eta idazkariak sinatuz".

Igaz hartutako neurria honako hau izan zan: 180 cm-ko perimetroa 150 cm-ko altueran.

## ZINE KLUBA

## Hal Hartley, zezeileko zine klubean



Flirt filma.

## Erredakzinoa

Igorreko zine klubak Hal Hartley zinema zuzendariaren gaineko zikloa antolatu dau zezeilerako. Hilaren hiru eguenetan (14, 21 eta 28), egile iparramerikarren

lanak ikusteko aukerea eskeiniko da. Emonaldiak Kultur Etxean izango dira arrastiko 20:00etan hasita.

"Zinema independentea" etiketapean sartzean da New York-eko egile hau, kritikearen eretiz. Hartleyren lanak zirkuitu komertzialetan ezagunak ez badira be, sari eta aitamen ugari jaso dabez, besteak beste, Sundance edota Cannes-eko zinemaldietan. Aitaturtekoa da zuzendari izateaz aparte, gidoilari, produktorea eta soinu banden konpositorea be badala berak sinatutako pelikula gehienetan.

Lehenengo egunean emongo dan lana *Flirt* (1995) izango da. Abiapuntu bera hartuta, New York, Berlin eta Tokion girotutako hiru istorio laburren barri emoten deusku bertan.

Bigarren saioko *Henry Fool* (1997) filmak sormena eta personon ezkutuko bizitza moduko gaiak lantzean dauz. Film honegaz Cannes-eko gidoi onenaren saria irabazi eban.

Zine klubeko azken saioan, *The Girl from Monday* (2005) emongo da. Lan horregaz zientzia-fikzioaren generora egingdako hurbilketa berezi bat osotu dau Hartleyk.

## ZINE KLUBA

## Fritz Lang-en zikloa Areatzan

## Erredakzinoa

Chaplin-en ostean, Fritz Lang zinegilearen txandea da. Zikloa Jose Angel Rebolledok emondako berbaldiagaz hasi zan urtailaren 31n. Zinegile handi honen film bi ikusi ahal izango dira Areatzan, *La mujer del cuadro* (1944) zezeilan eta *Los sobornados* (1953) martian. Eguna zehazteko dago oraindino. Saiok Areatzako Kultur eta

Kirol batzordeak antolatu ditu eta gazteleraz izango dira.

Fritz Lang (Viena 1890-Kalifornia 1976) zinema zuzendari, gidoigilea eta noizbehinkako ekoizlea izan zan. Alemaniako zinema-eskola espresionistan parte hartu eban eta Hollywoode-ra joan zan XX. mendeko 30eko hamarkadan. *Metropolis* (1927), *Furia* (1936) edo *Solo se vive una vez* (1937) film famaduen zuzendari da Lang.



Prozesinoan Balendin santuagaz.

Arratia, Ubide eta Zeberriko euskera eta kulturearen alde

**Hamabostero Begitu zure etxean**

**begitu**  
arratia ubide zeberri

**10 urte.**

**Egin zaitez zeu be Begitu-lagun**

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa

E-posta

Kontu korronteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€

■ 55€

■ 75€



Moztu eta bidali helbide honetara:  
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

## BERBALDIA

# Zen filosofiaren gaineko berbaldia eta ikastaroak



Fernando Vidal, Begoña Etxebarria eta Juantxu Zabala.

### Erredakzioa

Hilaren 16an, Areatzako udal-txean "Nutrizioa eta elikadurearen zergaitia" titulupeko berbaldi bat emongo dau Zen filosofia lantzean dauan mediku batek. Oostean, Zen meditazioa, hau da erlajazioa, egiten irakatsiko dabe antolatzaileak.

Zen meditazio taldeak hiru eguneko ikastaroak egingo ditu martian Areatzan.

Hamabost urte dira 30-40 persona inguruko Zen meditazio talde bat batzean dala Lamindaon. Lamindao Ama Birjina Alkartea izenagaz erregistrata dagozala dino Juantxu Zabala partaideak. "Leku

lasai baten bila gengoan eta inguru hau zoragarria iruditu jakun" dino Zabalak.

### Zen filosofia

Zen "bizitzaren konzientzia da, meditazioan oinarrituten da eta amarketa konzientea erabilten dau nerbio-sistemea hobetuteko. Ikastaroetan, 7 "txakra" edo energia puntuetan oinarritutako teknika bat irakasten da nork bere buruari lagunduteko" dino taldekoak.

Zabalaren arabera, teknika hau sano lagungarria da gaixotasun larri edo eta bizitzako momentu latzenaurre egiteko. "Meditazioak nerbio-sistemearen oreka dakar eta elikadura sano inportantea da minbizi kasuetan, organismoa beregituzteko".

"Horrek ez dau esan gura, medikuntzaren ordekoa danik. Botikak beharrezkoak dira, baina meditazioak sendatzen lagunduten dau" dino Begoña Etxebarria taldekoak.

Gaixoak eskatzen dauanean, ospitaleetatik be ibiltzen dira taldekoak energia puntuak akitbetan.

## IKASTAROAK

# Jabekuntza ikastaroak Zeanurin

### Erredakzioa

Zeanurin andrak euren indarraz jabetzeko balio daben hainbat ikastaro antolatu ditu Mazalak. Sabel jantza ikastaroa eta autodefentsa feminista barbarako. Sabel jantza urtailean hasi zan eta apilerarte luzatuko da. Autodefentsa feminista, barriz, zezeilaren 1 eta 2an izan da. Emozinoen gaineko tailer bat be egin dabe eta ondo zahartzeko ikastaroa antolatuten dabiz Mazala andra taldekoak.

Sabel jantza gehiago badagoz be, Egiptoko jantza tradizionala ikasten dabe ikastaro honetan. "Gizarte honetan irudia dala inportanteena emoten dau. Jantza honeguz andrak euren gorputzaz jabetzea, gorputzaren bidez sentipenak adierazotea eta modu sozial baten ondo pasetea gura dogu" azaldu deutso BEGURI Lide Etxebarria sabel jantzako irakasleak. Hamabi andra dabiz ikastaro honetan eguaztenetan Kultur Etxean.

### Bardintasun Planaren barruko ikastaroak

Hamabi orduko ikastaroa izan da autodefentsa feminista ikastaroa eta bariku arrasti eta zapatuko egun osoa hartu dau ikastaro honek. Helburua, andrak bizi daben desbardintasun egoeraz jabetzea eta euren gorputzaz eta beste andren alkartasunaguz honeri zelau aurre egin ikastea da. Jabekuntza personala eta kolektiboa, azken finean. Ikastaroa Maitena Monroyk emon dau.

"Autodefentsakoa lehenengo aldiz antolatuten da Zeanurin, Bardintasun Planaren barruan. Eta Bardintasunaren Planaren barruan be, 60 urtetik gorako emakumeentzat *Envejecer bonito* izeneko tailerra antolatuko dogu. Emozinoai buruzko ikastaroa be egin dogu. Hilero eguneko tailer txikiak egiten jarraitu gura dogu" azaldu deutso BEGURI Karnele Beobide Mazala andra taldekoak.

## DUNBA

# "Formau behar naz, nire gustuko lanpostuan etorkizuna izateko"



Zulaibargo ikasleak makinakaz beharrean.

### Zulaibar Lanbide Ikastegia

Dunba atalean idatzi genduan azken aldian praktiken inguruan egin genduan berba, eta oraingoan ikasketak eta lana buztartuten dabezan gure ikasleen inguruan arituko gara.

Zulaibarrek Haur Hezkuntza, Programazioaren Produktzioa (Fabrikazio Mekanikoa), Elektrizidade-Elektronika zikloetan eta Goi Mailko zikloetarako sarrera frogatuzteko ikastaroan, lanean eta ikasten dagozan ikas-

leak dagoz eta euren esperientzia eta eretxiak zuokaz konpartidu gura doguz.

Ingeniariak, irakasleak, trokeltileak, tabernariak, igeltseroak, ume zaintzaileak, harakinak; lanpostu desbardinetako ikasleak daukaguz bertan. Ingeniariak arlo teorikoan oso prestaturik datoz baina euren helburua ogibidearen alde praktikoa (tailerren, CAD, CAM eta CNC, elektronika-elektrizidadea) ikastea da.

Irakaskuntzan dabizanak haur hezkuntza zikloak eskeintzen

deutseen arlo praktikoaren bila datoz. Beste batzuk ez dagoz oso gustura euren gaur egungo lanpostuaguz eta gustuko daben ogibidea ikasten datoz. Badagoz euren lanpostuetan gora egin gura dabenak eta goi mailako programazioaren produktzio zikloan eta erdi mailako elektrizidade-elektronika zikloan dagozanak.

Goi mailako zikloa ikasteko sarrera frogatuzteko dagozan ikasleen helburu nagusia, enpresan eskeintzen diran lanpostue-

tarako beharrezkoa dan titulazioa eta formazioa lortzea da.

Ikastearen eta lan egitearen alde negatiboak be azaldu deuskuetz. Azterketa sasoian ikasteko denpora gitxi izatea, aisialdirako denpora gitxi daukie, errutinearen esklabu sentiduten dira eta egunero oso nekatuta amaituten dabe.

Ikasleak ikasteko egiten dituen ahalegin guztiak ikusita, ikasleak laguntzeko ikasketak plan personalizatuak prestatzen doguz. Lan ordutegia, lan esperientzia



Zulaibargo ikasleak ikastetxeko sarreran.

eta aurrez dik egindako ikasketak aztertzen doguz eta zikloak eskatzen dituen kompetentziak aztertu ondoren plan personalizatuak egiten doguz. Honen inguruan ikasle batek zera dino: Erleboetara egon ezkeror arrastian irakasleak zalantzak argitzeko prest dagoz, gure egoera ulerzen dabe eta ikasten jarraitzeko animetan gaitue.

Zorte on zuok eta ikasketak eta lana buztartu gura dituen guztai.



## AGENDEA

**ZEZEILAN  
IGORRE**

19:00etan martitzenero Kultur Etxean jaiak antolatutako batzarra. Jai Batzordeak deituta.

**ZEZEILAK 5  
ARTEA**

17:00etan, "Lan bila internet bidez" ikastaroa (gaztelerez) Kultur Etxean.

**LEMOA**

Hilaren 15era arte, "Zoru pelbikoa indartzea" ikastaroan izena emoteko epea.

**ZEZEILAK 6  
LEMOA**

19:00etan, Lemoa Tximindulari Elkarteak antolatuta "Kirol elikadura" berbaldia. Hizlaria Eneitz Iturriaga. Jubiladuen goiko pisuan.

**ZEZEILAK 7  
AREATZA**

18:00etan, Euskal jai 2013 batzarra. Gai nagusia eta data aukeratu eta programea diseinetako. Liburutegian.

**ARTEA**

17:00etan, "Lan bila internet bidez" ikastaroa (gaztelerez) Kultur Etxean.

**LEMOA**

10:15ean, JB Eguzkitza Meabek antolatuta, txixi-buruntzia eskolan ikasle eta gurasoentzat.

**ZEZEILAK 8  
AREATZA**

Aratusteak. 15:00etan, kanta eta jantzak eskolako patioan. Desfilea herriko kaleetatik. Txokolatea plazan. Guraso alkarteak antolatuta.

Aratusteak. 19:30etatik aurrera Inauteri pintxo pote festa. Gaia: Asia txikia. Gaztetxean.

**LEMOA**

Hilaren 10era arte, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta mendiko eskia. Zuriza/Acherito (2.378 m) Quimboa (2.179 m).

**ZEBERIO**

Aratusteak. 17:00etan, txokolatea Guraso alkarteak antolatuta. 18:00etan, Eriz magoa. 19:30ean, erromeria Xaibor taldeagaz

Austarrak antolatuta.

**ZEZEILAK 9  
DIMA**

Aratusteak. Udaletxeak eta guraso alkarteak antolatuta jaialdia. 17:30ean desfilea herriko trikitilariakaz. Gero meriendea. 19:00etan, umeentzako erromeria. 20:00etan, sari banaketea mozorronik onenari.

**IGORRE**

Aratusteak. 11:00etan, Umeentzako jokoak, Zaztapanak taldeagaz. 12:00etan, Guraso alkarteak antolatuta kalejirea. 14:30ean, bazkaria, baba-jana Arratiko Zekorrek Rugby Taldeak antolatuta.

17:00etan, Txagu Magu. 17:30ean, Umeen mozorro lehiaketea. 19:00etan, taloak Arratiko Zekorrek Rugby Taldeak antolatuta eta berberena AMEK antolatuta. 19:30ean, nagusien mozorro lehiaketea.

**LEMOA**

Aratusteak. 12:00etan, herriko koadrilen inauterietako batzea. Poteo musikatua Jubiladuen Tabernan, mozorrotuta. Haurrentzako Aratuste festa kiroldegian: 17:00etan, meriendea. 17:30ean, antzerki musikala *Kanpanolue 11 salto gehiago*. 19:00etan, mozorro desfilea. 19:30ean, jaialdiaren amaiera. 20:30ean, Herriko koadrilak antolatuta pikoteoa Elizondoko goiko tabernan. 21:30ean, Harriketarrak Gazte Asanbladak antolatuta berberena Gaztetxean.

**ZEZEILAK 10  
AREATZA**

Etxeramarxo. 11:30ean, Euskal Aratusteetako personajeen mozorroak jantzita, txixi-buruntzia plazan eta kanta poteoa herritik. Eskolak, Guraso alkarteak eta Kantaguneak antolatuta.

**IGORRE**

17:00etan, umeentzako zinea *El origen de los guardianes*. 19:30ean, zinea *La parte de los angeles*. Lasarte Aretoan.

**ZEANURI**

12:00etan, San Ageda ermitan mezea eta gizonen koroak koplak kantauro ditu.

**ZEZEILAK 11  
LEMOA**

11:00etatik ludotekea zabalik. 12an be zabalik.

**ZEZEILAK 12  
AREATZA**

19:30ean, Uxue Alberdiren *Aulki joko* liburuaren gaineko tertulia Emakume Foroko gelan.

**ARTEA**

17:00etan, "Lan bila internet bidez" ikastaroa (gaztelerez) Kultur Etxean.

**BEDIA**

Aratusteak plazan. Eguraldi baxra egiten badau frontoian. 11:00etatik 14:00etara, puzgarriak. 16:00etan, mozorro desfilerako izen emotea eta tailerrak. 17:30ean, mozorro desfilea herri mailan. 18:15ean, musika taldea. 19:30ean, txokolatea.

**ZEANURI**

Aratusteak. Gaia: lanbideak. 17:00etan, kalejirea eta ondoren jokoak. 18:00etan, txokolatea eta jantzialdia.

**Hemisferioak erakusketea Igorreko Kultur Etxean**

Zezeilaren 5etik 27ra, Ines Medinaren *Hemisferioak* erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan. Ines Medina sano ezaguna da Arratian, Igorren emoten dituan Prozesu Sortzaile Plastikoen gaineko mintegiak dirala eta, baina bere obrea ez da hain ezaguna, nahiz eta hau ez izan Igorren egindako bere lehenengo erakusketea. Izan be, 2009an *Panpin Erreak* erakusketea egon zan.

Oraingo *Hemisferios* erakusketan, Ines Medinak ohi baino formato txikiagoko lanak erakusten ditu. Oso jarrera intimoa erakusten daben lan prezidiuak dira eta eduki indartsua daukie. Erakusketa honen helburua Medina momentu horretantxe biziten, sentiduten edo errealidadearen parterren batetik sumatzen dauana adierazotea da.

## IRAGARKI LABURRAK

**SALDU  
SALGAI**

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

**SALGAI**

Haretzeko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

**AUTOA SALGAI**

Fiat Punto 1.2 Dynamic 5 ateduna. 8 urte ditu. ITVa 2014ko bagilera arte pasauta, 672 762 066 (Gaizka).

**DANERIK****BASERRIA ALOKATU GURA  
DOGU**

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

**ETXEA ALOKATZEN DOGU**

Alokairuan dagoan pisu baten bila gabizan neska arratier bi gara. Alaitz eta Maider 652 722 698.

**UMEAK JAGOTEN DODAZ**

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo

klase partikularrak emoteko prest nago. Kotxeduna. Interesdunak deitu zerbaki honetara 600 759 434 (Naiara) Telefonoa.

**UMEEN ZAINTZAK**

Umeakaz esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

**GARAJEA ALOKAIRUAN**

Garaje partzela bat alokatzen da Igorreko erdigunean. 659 395 911. Luis.

**BIZIKLETEA GURA DOT**

Errepidean ibilteko bizikletea gura dot. Zaharra eta merkea bada, barria eta karua baino hobeto. Idatzi: sautuolabarri@gmail.com helbidera.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

**Begitu-lagunen txokoa****Zerbaki honetako saridunak:**

1

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera**  
*La parte de los angeles* filmarako.

Iñaki Esparza (Arrigorriaga)  
Edorta Zurinaga (Zeanuri)



2

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera**  
*El Hobbit: Un viaje inesperado* filmarako.

Itsaso Arrizabalaga (Igorre)  
Gotzone Arrizabalaga (Igorre)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Aguantau. Azken letrea. 2.- Makur. Litioa. 3.- Santu bat aitatzean. Marokoko iparraldeko uria. 4.- Kimu, pipil. 5.- Letra bat. Ohore. 6.- Denduna. Bokala. 7.- Suagaz batera. Ogia egiten dauana. 8.- Oxigenoa. Maliziabako. 9.- Jantzi mota txandun bat.

### GOITIK BEHERA

1.- Nigeriako uria. Bazter. 2.- Kapar. Musika nota. Bokala. 3.- Familiarteko. Zintzo. 4.- Emea ez dana. Gatx. 5.- Nitrogenoa. Siniskor. 6.- Toki. ... mika, eztabaidan. 7.- Perretxiko mota bat. Bibliako pertsonajea, Matusalenen aita.



Topau emakumezkoen superligako 7 futbol talderen izenak.

P	O	N	T	E	B	E	R	D	E
O	L	A	G	U	N	A	K	A	Z
R	I	G	O	L	E	T	A	R	I
K	S	O	D	E	L	H	I	E	S
I	E	R	U	E	K	L	A	S	Z
B	V	I	R	T	O	E	I	P	B
O	I	L	A	N	A	T	X	A	U
G	L	A	J	A	R	I	R	N	A
U	L	T	I	V	E	C	A	Y	O
L	A	U	K	E	E	A	Z	O	R
A	B	R	A	L	T	I	O	L	I
R	U	M	O	D	E	F	O	K	U
S	A	N	T	I	N	T	E	R	O
V	A	L	E	N	C	I	A	R	G
O	Z	K	I	M	A	L	O	G	A

# AKI MI KO

Zorrozkiilo



**HERRIKO BENTA**  
HERRIKO PLAZA  
48142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel. 94 631 72 56

**expert** **ARRATIA**  
E posta: expertarratia@cordevi.com  
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

**bbk** =

**begitu.org**  
Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14  
eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com

## Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikola

- Arratia BHI**  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre
- Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
- Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre
- Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorreko Bigarren Hezkuntza, Baxilegiak, Hezkuntza zikloak

**arratiako instalazioak s.l.**  
Berokuntza - Iturgintza - Gas  
Aireztatze sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igoerriko Industriales, Pab. 07  
Tel./Fax 94 673 62 76  
619 736 616  
48140 Igoerre Bizkaia

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igoerre**  
Elexalde 4  
Telefona 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1. Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

## KEPA IKUTZA

**"la holantxe jubiletan garan, ogiagaz"**

Kepa Ikutza orain dala zortzi urte hasi zan ogia egiten. Inbersino hori egitea ebatzi eban eta aurtengo urrietan bederatzi urte beteko ditu lanbide honetan. Horretatik jubiletako asmoa dauka. Ezaguna da dimoztar honen ogia Arratiatik kanpora be. Telebista, irrati zein egunkarietan agertu da sarri Eguzkin baserriko emoitzea. Azkenengo Santo Tomasetan ogirik onenaren saria irabazi eban Bilbon. Honeek eta beste hainbeste kontu kontetako beharlekuko atek zabaldu deusaz BEGITURI okinak.

**Irati Urien****Esan leiteke Arratian Dima izan dala batez be ogia egite-agaitik ezaguna. Galdu egin da ohitura hori?**

Bai. Diman lehen igual sei lekutan egiten eben ogia eta orain ni eta beste bat baino ez gagoz. Honeek gauzak, lehengo modura egiten diranak galtzean doaz, behar asko daukie eta. Goizetik altzau behar zara. Ni goizaldeko ordu batetan alztetan naz; astegoienetan barriz, bariku, zapatu eta domekan egiten dot behar. Orduetgia txarra da. Behar polita baina gogorra be bada.

**Zer dala eta hasi zinan ogia egiten?**

Hemen, Diman, lehenago jente askok egiten eban ogia baserrietan. Baina urteakaz ixten joan dira. Ni fabrika baten nengoan lan egiten eta

pentzau neban, neu hasi behar naz ba horretan. Egundo honetan ibili barik, idearik be ez baina hasi egin nintzan. Familiatik neu naz honetan bakarra, betidanik karnizeruak izan gara eta.

**Zelan ikasi zenduan edo pres-tatu zinan?**

Hemengo Mari Artaberri esan neutsan irakasteko. Bai berak eta bai alabak ogi asko egiten eben lehen.

**Betiko moduan, antxinako era-  
ra egiten dozu orduan?**

Bai, pamitxea eta, lehengo moduan. Pasetan dana da erabilten dozun labearen arabera asko kanbietan dala. Nik daukadan laban egurragaz egiten dot sua baina labak desbardinak dira eta orduan bardin-bardin ez da geldituten. Halanda be, prozesua bardina da, bai.

**Ze ogi egiten dozuz?**

Dimako edo Arratiako tipikoa dan

pamitxea, baserriko ogia, intxaur eta mahaspasaduna, espinakaduna, lehen artoduna, espeltaduna, zekaleduna, barrak, mokotxak, txoripanak... apur bat danetik.

**Zelan baloretan dozuz zortzi urte honeek?**

Lehen esan dodana, ordutegia apurtxo bat txarra baina bueno. Gaztea zaranean zapatuetan eta urtetea gustetan jatzu eta hori hemen ezin daiteke egin. Baina sano ondo ze guk ondo saltzean dogu, ez dogu bajoirik igarri. Jentea etorri egiten jaku, gustau egiten jakie antza gure ogia.

**Jentearen erantzuna ona da orduan.**

Bai. Kanpotik be etorten dira. Arratiako beste herrietatik aparte Bilbotik be etorten jakuz astegoienetan ogi eske.

**Jenteak baserriko ogia baloretan dauala esan leiteke?**

Bai. Baserriko ogiak irau egiten dau, diferentea da. Jenteari gustetan jako igual domekan erosi eta gero hiru-lau egunerako eukitea. Kalidadea be hobea da eta.

**Krisirik igarri dozue zuek?**

Ez, jenteak erosten segiduten dau. Egia da igarten dala fetxearen arabera baina hori beti. Orain urtailan, Gabonen ostean jentea erregimena egiten hasten da eta beti igarten da apur bat. Baina guk bardin saltzean dogu, bederatzi urteotan, beti antzera.

**Ferietara eroaten dozue, ezta?**

Bai. Ni lehen gehienetara joaten nintzan baina orain hemen saltzean dogu eta danera ezin gara heldu. Santo Tomasera beti joaten naz. Arrastian ogia egiten hasi, gau osoa horretan ibili eta gero Bilbora. Han be egon egin behar zara, eta azkenean gogorra da.

**Santo Tomas aitatu dozu. Atzenngoan saria etxera.**

Bai. Ogi lehiaketea egoten da,

gaztai leheiaketea eta dagoan moduan. Eta irabazi egin neban.

**Gaztairik onenaren saria Zea-nurira, ogiarena Dimara... kalidadea dago Arratian gero.**

Bai, bai. Jon (Etxebarria) laguna dot, koadrilakoa. Berak irabazi ebanean barriz "ia oin ogiegaz be iribazten bu" esan eustan.

**Espero zenduan?**

Ez. Kontua da lehen Santo Tomas egunean berean emoten ebela saria. Baina orain lau egun berandua-go deitzean dabe nok irabazi dauan esateko. Niri Gabon egunean deitu eusten. Baina zeozer sumatuten neban. Izan be postuan nengoala Bilbon, telebisinoa, irrati, egunkariak... etorri jatazan Kepagaitik

itaunduz. Moskeauta egon nintzan. Nire alboan gaztaidun bat egoan eta harek be, seguruenik ogiarena irabazi dozulako izango da, esan eustan. Atzenean errekonozimendu bat be bada. Hainbeste behar egin ostean... jenteak izena be entzun dagian.

**Zenbatean saltzean dozuz ogiak ferietan?**

Euro bian. Besteak, gehienak euro bi eta erdian saltzean dabez.

**Jentea ados dago prezio horregaz? Erosten dau?**

Bai. Nik pentsetan dot euro bi ondo dagoala, holango ogia izanda. Batzuek abusau egiten dabe. Ikusita daukat jentea ogia 2,60 edo 3 euroan saltzean.





# ALKIZABAL

www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA

Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)












· Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.

· Garraio zerbitzua.